



«HOBETO JARDUTEKO...»
(San Ignazio Loiolakoa, Konstituzioak SJ [134])



2018

Jesusen Lagundiko Espainiako probintzialak onartua
2013ko urtarrilaren 30ean

Eguneratua eta berrikusia
2018ko abenduaren 12an

A handwritten signature in grey ink, appearing to be 'Jesu', located in the bottom right corner of the page.

Jesusen Lagundiaren xede instituzionala eta hura betetzeko laguntzak..... 1

I.Kodearen izaera eta aplikazio eremua

II. Jarraitu beharreko portaerak

- A) Instituzioaren portaerak 6
 - a) Berekin..... 6
 - b) Elizarekin 6
 - c) Gizartearekin oro har..... 6
 - d) Zerbitzuen hartzaileekin 7
 - e) Enplegatu eta kolaboratzaileekin..... 7
 - f) Betebehar horiek betetzeko erantzukizuna..... 10
- B) Enplegatuen eta kolaboratzaileen portaerak 10
- C) Enplegatuen eta kolaboratzaileen portaerak erakundearen jardueraren onuradunekin edo hartzaileekin eta gizartearekin oro har 14
- D) Erakundearen barruko harreman pertsonalak 17

III. Kodea betetzeko neurriak 18

Eranskina. Jokabide Kodea ezagutzeko eta gerta litezkeen arau-hausteak ebazteko prozedura..... 22

Jesusen Lagundiaren xede instituzionala eta hura betetzeko laguntzak

1. Jesusen Lagundiak (Lagundia) bere¹ jardueren eta erakundeen bidez berarekin harremanetan dauden pertsona guztien ongizate osoa sustatu nahi du. Xede instituzional hori «Jaunaren zerbitzua eta hurkoentzako laguntza» moduan ere formulatzen da.²
2. «Hurkoari laguntzeko» asmo hori era guztietako pertsonetara zabaltzen da bereizkeriarik gabe, eta pertsonekin lankidetzan aritzea da helburua, beraien giza baldintzen eta heldutasunaren arabera, bakoitzak erabakiak hartzeko duen erantzukizuna eta heldutasuna errespetatuz, gizarteko pertsona eta kide aktibo, erantzule eta solidario gisa garatzeko aukera guztiak izan ditzaten.
3. Lagundiak bere eginda sustatzen du xede instituzional hori, eta hala hartzen du parte Eliza Katolikoaren misio salbatzaile eta humanizatzailean, alegia, Jesukristorengandik gizateria osoaren mesederako hartutako misioan, Elizaren mende jarrita⁴.
4. Era berean, Lagundiak uste du bere xede instituzionala sustatzea dela berezko duen gizarte erantzukizuna, gizartea hainbat alorretan (batez ere gizarte, kultur eta erlijio alorretan) hobetzeko ekarpen aktiboa eta borondatezkoa egiteko bidea.

¹ Cf. San Ignazio, *Primer Examen y General* (Ex.), [3].

² Edo «Jainkoaren zerbitzua, hurkoaren laguntzan», edo «Jainkoaren zerbitzua, hurkoari lagunduaz».

³ Cf. Konstituzioak [163].

⁴ Cf. Fórmula del Instituto (FI), 1; NC 245 §1. Instituzioaren xedea duela gutxi formulatu da, *Lagundiaren misioa* izena eman zaio eta hau da: «fedea zerbitzatu, justizia sustatzea erabateko eskakizuna izanda» eta «Ebanjelioaren aldarrikapen inkulturatua egin eta beste tradizio erlijiosoeekin elkarrizketan aritu, ebanjelizazioaren dimentsio integral gisa» (NC 4 §1, 245 §3).

5. «Hurkoari laguntzera» bideratutako jarduera eta erakundeetan Lagundiak bere kideak eta beste pertsona batzuk erabiltzen ditu bere zuzendaritzapean eta erantzukizunpean. Pertsona horietako batzuek lan harremana dute Lagundiarekin eta beste batzuk borondatezko lankidetzan aritzen dira.
6. Bere xedea lortzeko, Lagundiak era askotako bitartekoak eta laguntzak erabiltzen ditu, jardueren eta erakundeen izaeraren arabera; horien guztien artean bat nabarmentzen da, bat da «lehena» jarduera guztietan, bertan lanean aritzen diren guztien «zintzotasun eta bertute eredu ona» alegia, hitzekin baino gehiago ekintza onekin egiteko ekarpena eurekin harremanetan daudenen ontasunari («eraikuntza»).
7. Are gehiago, Lagundia sortu zenetik arau edo jarraibide orokorrak edo lanbide eta jarduera berezietarako jarraibideak egon dira. Jarduera horietan lortu nahi ziren helburuak erdiesteko nola aritu behar zen deskribatzeaz gain, jardueren onurak jaso behar zituzten pertsonekin nola erlazionatu ere aipatzen zuten.
8. Duela gutxi, eta xede hori gogoan izanda, adierazpen instituzionalak, idearioak, ezaugarriak eta antzeko beste agiri batzuk egin dira. Bertan, erakundeen eta jardueren helburuak, gobernatzeko oinarrizko printzipioak, sustatzen eta komunikatzen dituzten balioak eta haiek lortzeko oinarrizko bitartekoak deskribatzen dira. Horrez gain, agiritan argi adierazten da Lagundiak zer espero duen bere erakundeetan lan egiten duten pertsonen lankidetzatik, legearen edo kontratuaren eremutik haratago.
9. Konpainiaren jardunbide horrekin jarraituz, agiri honetako xedapenek gaur egunerako *Jokabide Kodea* (Kodea)⁷ formulatu nahi dute eta horren mende jarri

⁵ Cf. Kons [637].

⁶ Testuinguru honetan, esanahi berezia dute San Ignaziok berak emandako "Instrukzioek" edo misio jakin batzuetara igorritako jesuitei emandako aginduek; horrela, Konstituzioek aipatzen duten aurreikuspen orokorra betetzen da [612-614, 620-630 [612-614, 620-630].

⁷ "Jokabide Kodea" enpresa edo erakunde batek bere giza baliabideen garapenean, enplegatu eta kolaboratzaileekin, bere jardueraren hartzaile edo bezeroekin, gobernuekin eta inguruko komunitateekin dituen harremanetan eta ingurumen arloko kudeaketan darabiltzan printzipio, balio eta politiken adierazpena da. Horiek bete daitezzen zaindu behar duten organoak eta prozedurak ere zehazten ditu, baita balizko arau-hausteak zuzentzeko eta zigortzekoak ere (OIT).

beharko dira Lagundiak Espainian dituen erakunde eta jarduera guztiak beren eginkizunetan, bai Lagundiarenak berarenak, bai bere kargu utzitakoak, bai haietara biltzen diren pertsonak ere.

- 10.** Kodea formulatzean, kontuan hartu dira aipaturiko oinarritzko agiriak (instituzionalak, idearioak, ezaugarriak eta abar); horien edukia dago Kodearen oinarrian, Lagundiak bere jardueretan dituen nahien adierazpen baitira; eta agiri horiez gain, aplikatzekoak diren legezko eta kontratuzko betebeharrak ere hartu dira aintzat.

Kodearen izaera eta aplikazio eremua

- 11.** Kode honek ez du betebeharrak berririk eragiten, lehendik ere konpromiso instituzionalagatik, legeagatik edo borondatez hartutako akordioagatik ez dagoenik, baina betebeharrak betetzeko jardunbide egokiak zehazten ditu, xede instituzionala errazago lortzeko eta, aldi berean, lorpen horren bermea emateko interes zuzena dutenei eta gizarteari, oro har.
- 12.** Lagundiak Espainian dituen erakunde eta jarduera apostoliko guztietan ezarriko da Kodea, Lagundiaren titulartasuna dutenetan eta estatutu bidez edo akordio partikularren bidez beraren mende jarritakoetan. Kodea loteslea izango da haien zuzendari, enplegatu eta kolaboratzaile guztientzat, baita bertan lan egiten duten Lagundiko kideentzat ere. Beharrak artatzeko enplegatutak dituzten komunitateetan ere ezarriko da.
- 13.** Kode honen ondoreetarako, zuzendaritza boterea duten lanak egiten dituzten Lagundiko kide guztiak eta gainerako pertsonak zuzendaritzat hartuko ditugu.
- 14.** Lagundiko erakunde batekin lan harreman baten bidez lotutako pertsonak enplegatutzat hartuko ditugu.
- 15.** Lagundiarekin lan harremanik edo harreman instituzionalik izan ez arren, borondatez eta doan Lagundiko jardueren edo erakundeen antolaketan edo garapenean aritzen diren pertsonak kolaboratzailetzat hartuko ditugu.
- 16.** Lagundiaren erakundeekin eta komunitateekin lotura duten pertsona edo erakunde guztiei ere (kanpoko aholkulariei, zerbitzuak eskaintzen dituztenei edo hornitzaileei) ezarri ahal izango zaie Kodea, haien jardueraren ondorioz Betetze Batzordeak hala iritziz gero.

Jarraitu beharreko balioak eta portaerak

17. Oro har,

1. Lagundiak Espainian dituen erakundeek eta jarduerak eta haietan, modu batera edo bestera, lanean ari direnek Lagundiak nahi duen xede instituzionalarekin bat etorritz aritu beharko dute: zerbitzatzen dituzten pertsonen ongia izango dute beti xede, eta horren aurka dagoen oro saihestuko dute.
2. Ondorioz, Lagundiaren erakunde eta komunitateekin lan egiten dutenak edo lankidetzan aritzen direnak, Jokabide Kode honetako balioen babesle eta zabalzaile izanik, gonbidaturik daude balio hauek partekatzerara:
 - i. Nazioartean onarturik dauden giza eskubideak babestea eta errespetatzea.
 - ii. Errespetua izatea Lagundiko kide guztiei, pertsona guztiei eta norbere buruari, eta sentsibilitatea izatea besteen egoerarekiko.
 - iii. Gizarte osoaren onerako lan egitea, politikaren interferentziarik gabe.
 - iv. Justiziaren eta bakearen alde egitea.
 - v. Erantzukizun sozialez eta lagun hurkoa zerbitzatzeko bokazioz jardutea.
 - vi. Elkartasun eraginkorrez aritzea, bereziki beharizan handiena dutenekin.
 - vii. Bereizkeriarik ez egitea eta aukera-berdintasuna jagotea.
 - viii. Legezketasunarekin konprometitzea.
 - ix. Profesionaltasunez jardutea eta bikaintasunaren eta kalitatearen alde egitea, zerbitzuetan eta kudeaketan.
 - x. Familia bizona sustatzea.
 - xi. Elkarrizketa eta parte hartzea bultzatzea.
 - xii. Aniztasuna modu positiboan baloratzea eta pertsonen arteko desberdintasun, ideia eta egoeretatik ikastea.
 - xiii. Ingurumena zaintzea.
 - xiv. Askatasun arduratsuz jokatzeko.
 - xv. Konfiantza lantzea.



- xvi. Zintzo jokatzea
- xvii. Prestutasunez jokatzea
- xviii. Gardentasunez jokatzea
- xix. Egiaz jokatzea
- xx. Zuzen jokatzea

18. Hona hemen bereziki kontuan izan beharreko portaerak:

A) Erakundearen portaerak

a) Berekin

- 19.** Lehen-lehenik misioa bete beharko du, bere nortasuna zaindu, mantendu eta indartu, eta argi eta garbi jakinarazi beharko die nortasun hori bere zerbitzuen hartzaileei, bertan lanean ari diren guztiei eta, oro har, jendeari, horretarako baliabide egokiak erabiliz.
- 20.** Praktikan, horrek dakar xede horretara bideratutako ekintza estrategiko eraginkorrak formulatzea aldi-aldi eta etengabe aurrera eramatea; baina, batez ere, barruko eta kanpora begirako funtzionamenduan eta jarreran bere misioaren eta komunikatu nahi dituen printzipio eta balioen erakusgarri argia izan behar du eta hala agertu behar du jendaurrean.
- 21.** Autoebaluazioa egingo du aldiro, modu zintzo eta objektiboan, berarentzat eta egin behar duen zerbitzuarentzat hain garrantzitsuak diren alderdi horiei buruz.

b) Elizarekin

- 22.** Elizarekin bat eginda garatuko ditu bere jarduerak eta Elizaren plangintza eta ekimenetan lankidetzan arituko da dagokion eremuan. Aldi berean, Elizaren ekimen unibertsaletan solidarioa izango da eta ahal duen guztia egingo du tokiko elizetako eta bere esparruko antzeko erakundeetako agintariekin eta erakundeekin harreman egokiak izateko.

c) Gizartearekin, oro har

- 23.** Inolako interferentzia politikorik gabe eramango du aurrera bere jarduera. Gobernuekin, agintariekin,

erakundeekin eta organismo publikoekin izango den harreman oro legez, etikaz eta errespetuz eramango da.

24. Aldi berean, kontuan izan behar du bere inguruaren ongizaterako elkarlanean aritu behar duela, bere izaeraren eta aukeren arabera.

25. Bereziki:

1. Legez dagozkion betebeharrak guztiak zintzo beteko ditu, baita betearaziko ere dagozkion eremuan.
2. Konpromisoa hartuko du ingurumenarekin errespetuz jokatzeko eta gai horretan zabal onartzen diren eta Lagundiak berariaz sustatzen dituen prozedurak eta jardunbideak erabiliko ditu. Horretarako, bertan lan egiten dutenei eta onuradunei ikuspegi, baliabide eta jardunbide ekologikoei buruzko orientabideak eskainiko dizkie eta horiekin bat datozen jarrera zehatzak eskatuko dizkie.

d) Zerbitzuen hartzaileekin

26. Lagundiaren erakundearen jardueren hartzaileak eta onuradunak izango dira erakunde horien eta bertan lan egiten duten guztien ahaleginen ardatz. Lagundiak ahalegin guztia egingo du bere zerbitzuetan eta kudeatzeko eran bikaintasuna eta kalitate maila handia eskaintzeko.

27. Bikaintasunerako gogo hori besteei zerbitzua ematera bideratu behar da, bereziki beharrik handiena dutenei.

28. Ahalegin guztia egingo du bere zerbitzuen hartzaileak besteen beharrekin sentsibilizatu daitezzen eta egiazko elkartasun zentzua sortu dadin haiengan.

e) Enplegatu eta kolaboratzaileekin

29. **Tratu duina eta errespetuzkoa**

1. Pertsonak errespetatzea eta tratu duina ematea da jarduteko oinarrizko eta ezinbesteko printzipioa, baita jarrera umiliagarri edo baztertzailerak arbuatzea ere.
2. Inor ez da lanean baztertuko edo mesedetuko bere ideologia, erlijio edo sinesmenagatik, etnia, arraza edo nazioagatik, bere sexuagatik, sexu joeragatik, gaixotasunagatik edo desgaitasun fisiko edo psikikoagatik, langileen legezko edo sindikatuko

ordezkaria delako edo dagokion autonomia-erkidegoko hizkuntza ofizialen bat erabiltzen duelako ezarritako legediaren arabera, kasu bakoitzeko inguruabarrak kontuan izanda.

30. Laneko segurtasunerako eta osasunerako bermea

1. Lan baldintza egokiak ezarriko dira, erakundeetan lan egiten dutenen eta hartzaile edo onuradunen segurtasuna bermatzeko.
2. Horretarako, laneko segurtasunari eta osasunari eta ingurumen babesari buruzko araudia ezarriko da, arlo horretako etengabeko prestakuntza eskainiko da eta mantentze lanak egingo dira aldian-aldian, instalazio, ondasun eta ekipamenduetan.

31. Laneko eta Gizarte Segurantzako baldintzen errespetua

1. Beti errespetatuko dira legezko xedapenek, hitzarmen kolektiboek eta sinatutako kontratuek ezarritako laneko eta Gizarte Segurantzako baldintzak, baita enplegatuek haietan aitortuta dituzten eskubideak ere.
2. Kontratazio eta barne-sustapeneko politikak merezimendu, gaitasun eta balio profesionalaren irizpideetan oinarrituko dira, baita enplegatuek adierazpen instituzionalarekin edo erakunde bakoitzeko ideiekin duten adostasun pertsonalean ere.
3. Aukera berdintasuna bermatzeaz gain, enplegatuen eta kolaboratzaileen garapen integralaren alde egingo da, alderdi profesionalen, zein pertsonalean, eta, horretarako, jarduerarako behar diren prestakuntza eta baliabideak eskainiko dira.
4. Enplegatuek eta kolaboratzaileek euren funtzioak ahalik eta hobekien bete ditzaten, misioa definitzen duten oinarritzko dokumentuak emango dizkiete erakundeek, eta dokumentu horiek ulertzen eta edukia berenganatzen lagunduko diete, aldian-aldian informazioa emanaz eta gogoeta eraginez, dokumentu horiek izan daitezen euren portaeraren inspirazio iturri.

32. Askatasun sindikala

Enplegatu guztiei bermatuko zaie, salbuespenik gabe, elkartzeko, sindikatzeo eta negoziazio kolektiborako eskubidea.

33. Bizitza pertsonalaren eta familiakoaren sustapena

1. Enplegatuen eta kolaboratzaileen familia bizitza sustatuko da. Adingabeko seme-alabak edo desgaitasunen bat edo gaixotasun larriren bat daukaten senitartekoak euren kargura dituztenei behar duten laguntza eskaintzeko bideak egokituko dira, ahal dela (ordutegiak, jaiegunak, lanaldi murrizketak edo antzeko eragina duen beste edozein neurri).
2. Enplegatu eta kolaboratzaileen atsedenaldea eta oporrak ziurtatzeko eta bizitza pertsonala eta familiakoa errespetatzeko, lan egun eta ordutegietatik kanpo saihestu egingo dira lanari buruzko telefono deiak eta mezu digitalak, kontuan izanik zein den lan harremanaren izaera eta helburua eta beti ere negoziazio kolektiboan ezarritakoa, edo, halakorik ezean, langileen ordezkariekin adostutakoa betez. Salbuespena izango dira premiazko kasuak edo egoera bereziak.

34. Beste jarduera eta elkarte batzuetan parte hartzeko eskubidea

1. Enplegatuei eta kolaboratzaileei jarduera ez profesionaletan parte hartzeko eskubidea errespetatuko zaie, parte hartze horrek haien funtzioetan inolako oztoporik eragiten ez badu edo erakundearen irudi publikoari kalterik egiten ez badio.
2. Era berean, enplegatuei eta kolaboratzaileei elkarte edo alderdi politikoetan edo beste edozein erakunde ekonomiko, sozial edo kulturaletan parte hartzeko eskubidea aitortzen zaie, horrek erakundean duten jarduera oztopatzen ez badu.

f) Betebehar horiek betetzeko erantzukizuna

- 35.** Erakundearen betebehar horiek, lehenik, erakundean zuzendaritza karguak dituztenek bete behar dituzte, eta bertan lanean edo lankidetzan aritzen diren guztiek, zeinek bere arloan.

B) Enplegatu eta kolaboratzaileen portaera erakundearekin

36. Erakundearekiko konpromisoa

Jesusen Lagundiko erakundeetan lan egiten eta laguntzen dutenek aurrera daramaten misio apostolikoaren eta funtzio sozialaren garrantziaz jabetu behar dute eta harekin konprometituta sentitu. Hori dela eta, Lagundiak sustatzen dituen eta idearioan edo adierazpen instituzionalean jasota dauden balioekin eta idealekin bat datorren portaera izango dute beti, eta printzipio horiek eta betetzeko bitartekoak errespetatuko dituzte.

37. Erakundearen izen ona zaindu beharra

1. Erakundeko enplegatu edo kolaboratzaile guztiek portaera zuzena, zintzoa eta hutsik gabea izan behar dute nagusiekin, kideekin, mendekoekin eta beren misioaren hartzaile eta onuradunekin; horrela, erakundearen izen onari kalte egin diezaiokeen portaera oro saihestuko dute.
2. Etengabeko ahalegina egin behar dute pertsona moduan eta jardueran hobetzeko, misioaren alor guztietan bikaintasuna sustatu ahal izateko eta zerbitzurik onena eskaintzeko erakundeari, kideei eta onuradun eta hartzaileei.

38. Bizitza pribatua eta interesen gatazka

1. Erakundeak bere enplegatuen bizitza pribatua errespetatzen du eta, ondorioz, baita haien erabakien arlo pribatua ere; dena dela, espero da erakundearen idearioarekin eta berezko izaerarekin koherentea den

bizimodua eramatea, bereziki erantzukizuneko postuak dituztenen kasuan.

2. Enplegatuek ezingo dute erakundetik kanpoko jarduera profesionalik garatu, erakundeko jarduerarekin lehia garbian badago, berariazko baimenik izan ezik.

39. Jarduketa publikoak

Lagundiaren erakunde eta jardueretako enplegatuek eta kolaboratzaileek Lagundiaren izenean hitzaldiren batean, jardunaldiren batean edo hedapen publikoa izan dezakeen beste ekitaldiren batean parte hartzen badute, bereziki komunikabideen aurrean, kontu berezia izan beharko dute adierazpenetan, ordezkatzan duten erakundearen berezko izaerari kalterik ez egiteko.

40. Informazio konfidentziala eta pribatutasuna

1. Lagundiaren erakundeetako enplegatuek eta kolaboratzaileek bertan egiten duten jardueraren ondorioz eskuratutako datu, agiri eta informazio estrategikoak edo isilpekoak ezingo dituzte beren mesedetan erabili, ezta beste inori jakinarazi ere.
2. Konfidentziasun horrek erakundeko jarduera amaitu ondoren ere iraungo du, eta lana uztean, enplegatuek edo kolaboratzaileak erakundearekin lotutako material oro itzuli beharko du.
3. Ezin daiteke, inoren sekretuak ezagutzeko edo pribatutasuna urratzeko asmoz, baimenik gabe hartu inoren paper, gutun, mezu elektronikoa edo beste edozein dokumentu edo efektu pertsonalik. Halaber, ezin daiteke inoren telekomunikaziorik atzeman, edo gailu teknikorik erabili, inoren soinu, irudi edo beste komunikazio seinaleren bat entzuteko, igortzeko, grabatzeko edo erreproduzitzeko.

41. Dokumentazio, datu eta sistema informatikoetarako sarbidea

1. Erakundeko enplegatuek eta kolaboratzaileek ez dute eskubiderik euren funtzioetatik kanpoko informaziorik eskuratzeko, nagusia izan ezik edo horretarako baimena eduki ezik. Enplegatuek ezingo dute erakundeko agiriaren edo informatikako fitxategien kopiarik atera, laneko arrazoiengatik ez bada.

2. Datu eta fitxategi informatiko guztiak modu egokian mantendu beharko dira, enplegatu batek beste bat ordezkatu ahal izateko moduan. Beraz, fitxategiak osorik eta ordenatuta egon beharko dira, erraz ulertzeko moduan.
3. Ezin daiteke baimenik gabe sartu sistema bateko datu edo programa informatikoetara edo sistema horretan geratu, horrelakoak saihesteko segurtasun neurriak urratuta eta neurri horiek jartzeko legezko eskubidea duenaren borondatearen kontra.
4. Lanean erabilitako datuak biltegitratzeko euskarriak eta agiriak ez dira egongo baimenik ez duten pertsonen eskura; beraz, giltzapean gordeko dira. Ordenagailuak babesteko, pasahitzak erabili beharko dira eta aldi berean behin aldatu.

42. Datu pertsonalen babesa

1. Datu pertsonalek babes berezia behar dute eta, horretarako, zorrotz beteko da horri buruzko legeria.
2. Ezin daitezke inola ere erabili edo aldatu, baimenik gabe eta hirugarrenen kaltean, beste baten datu pertsonalak edo familiarak, baldin eta datu horiek fitxategi edo euskarri informatiko, elektronikoa edo telematikoa, edo beste mota bateko fitxategi edo erregistroetan badaude. Era berean, ezingo dira datu horiek hartu inongo bidez, aldatu edo titularraren edo hirugarren baten kaltetan erabili.

43. Ondasunen administrazioa

1. Erakundeetako zuzendariak eta arduradunak arduraz eta leial administratu behar dituzte aldi baterako ondasunak, ez ondasunak nahi erara erabil ditzaketan jabeak balira bezala, baizik eta beren esku jarri diren ondasunak Elizako eta Lagundiko legeen arabera kudeatu behar dituzten agintari modura.
2. Era berean, erakundeetako zuzendariak eta arduradunak arreta handiz zaindu behar dute erakundeen ondasunen administrazioa eta, bereziki, kapitalen inbertsioak, kalitate etikoz egin daitezten eta justizia soziala urratu gabe eta sustatu dadin zainduz.
3. Erakundeetako administrazioak zintzo beteko dituzte kontabilitateko betebeharrak. Ezin dezakete ezkutuko kontabilitaterik eraman jarduera eta ekitaldi ekonomiko

berean, erakundeko egiazko egoera ezkutatzeko. Negozio, ekintza, eragiketa eta, oro har, transakzio ekonomiko guztiak jaso beharko dituzte nahitaezko liburuetan, egiazko zifrak jarritz, eta ezin izango dute liburu horietan gezurrezko daturik jaso.

4. Kontabilitateko erregistro guztiak egongo dira barneko eta kanpoko auditoreen eskura.

44. Kapitalen zuriketa

1. Ezin daiteke ondasunik erosi, eduki, erabili, bihurtu edo eskualdatu, delituzko jarduera baten ondoriozkoa dela jakinez gero. Legez kanpoko jatorri hori estaltzeko beste jarduerarik ere ezin daiteke egin, eta legea hautsi duenari bere ekintzen legezko ondorioetatik ihes egiten lagundu ere ez.
2. Era berean, ezin daitezke ezkutatu ondasunen edo haien jabetzaren egiazko izaera, jatorria, kokapena, xedea, mugimenduak edo eskubideak, jakinaren gainean egonda legez kanpoko jardueraren batetik datozela edo horrelakoren batean parte hartu ondorengo ekintzaren batetik datozela.

45. Instalazio, ekipamendu eta zerbitzuen erabilera

1. Lagundiaren erakundeen ondasunak Lagundiaren xedek betetzeko dira. Ondorioz, inor ere ezingo da haien jabe egin eta erakundeko instalazioak, ekipoak eta zerbitzuak esleitutako funtzioetarako baino ez dira erabiliko. Enplegatuek edo kolaboratzaileek ezingo dituzte xede pertsonaletarako erabili, nagusiaren berriazko baimenik gabe.
2. Ekipamendu informatikoei dagokienez, debekaturik dago birusik sortu edo igortzea, softwarearen legez kanpoko kopiarik egitea, egile eskubideak dituen edukirik deskargatzea edo mezu elektronikorik igortzea xede politiko edo komertzialekin.
3. Baliabide informatikoetan neurrizko erabilera pertsonala egin ahal izango da, eta erakundearen kontrolpean egongo da, aldez aurretik ezarri eta enplegatu eta kolaboratzaileei jakinarazitako irizpideen arabera.
4. Erakundearekin duten erlazioa bukatzean, bertan lan egin edo kolaboratu duten guztiek erakundeari lotutako material edo ekipo oro itzuli beharra izango dute eta ezingo dute erakundeko posta elektronikoa edo sinadura



digitala erabili, horretarako berariazko baimena izan ezik.

C) Enplegatuen eta kolaboratzaileen portaerak erakundearen jardueraren onuradun edo hartzaileekin eta gizartearekin oro har.

46. Harreman adiskidetsu eta errespetuzkoak

1. Kode honen eraginpeko pertsonak erakundeak jardueraren onuradun edo hartzaileekin errespetuzko, adiskidetasunezko eta justiziazko harreman duinak izan behar dituzte. Ez da onartuko inolako indarkeriarik, larderiarik, etsakeriarik, umilaziorik, jazarpenik edo gehiegikeriarik, ez sexualik, ez pertsonalik, eta ez da diskriminaziorik egingo ideologia, erlijio edo sinesmenengatik, etnia, arraza edo nazioagatik, sexu, joera sexual, gaixotasun edo desgaitasun fisiko edo psikikoagatik.
2. Adingabeen garapenak eta duintasunak errespetu berezia merezi dute; horregatik, babestu egin behar dira sexu edo eskolako indarkeria (*bullying*), larderia, etsaitasun, jazarpen edo abusu orotatik.
3. Bestalde, ez dira adingabeekin harremanetan jarriko Internet edo telefono bidez, edo beste informazio eta komunikazio teknologiaren bat erabilita, sexu helburua duten topaketak proposatzeko edo adosteko (*on-line grooming*).

47. Jardun zintzoa, egiazkoa eta gardena

1. Lagundiko jardueretan eta erakundeetan lan egiten dutenak edo lankidetzan aritzen direnak zuzen eta garden erlazionatuko dira beren onuradun edo hartzaileekin eta, oro har, tratatzen duten pertsona fisiko edo juridiko ororekin. Hortaz, egiazko informazio argia emango dute beti eta besteari kalte egin diezaiokeen jarrera iruzurti eta faltsu oro saihestuko dute.
2. Era berean, ez dute ezer egingo agiriak edo kontratuak aldatzeko edo simulatzeko, ekintza batean parte hartu ez duen norbaiten parte hartzea irudikatuzko edo parte hartu dutenei egin ez duten adierazpenik egozteko, eta gertatutakoak kontatzean ez dute gezurrik esango.

3. Bestalde, jabetza intelektualaren ondoriozko betebeharrak errespetatuko dituzte.
4. Erakundeko informazioa bildu eta elizako agintariei eta erakunde publiko edo pribatuei igortzeko edo iragarki publikoetan jartzeko ardura duten guztiek informazio osoa, egiazkoa, irekia eta ulergarria eman beharko dute eta garaiz.

48. Ondasun eta zerbitzu hornitzaileekiko harremanak

1. Lagundiaren erakunde eta jardueretako enplegatu eta kolaboratzaile guztiek harreman legezko, etiko eta zuzenak izango dituzte ondasun eta zerbitzuen hornitzaileekin.
2. Ondasun eta zerbitzuen hornitzaileak irizpide objektibo eta gardenekin aukeratuko dira, erakundearen interesak eta hornikuntzan baldintzarik onenak lortzea uztartuko dira eta hornitzaileekin harreman egonkor, etiko eta arduratsuak izango dira. Ez da erlazio edo interes pertsonalik erabiliko kontratuak esleitzerakoan.
3. Lagundiaren erakunde eta jardueretan lan egiten duen inork ezingo du, bere kabuz edo beste norbaiten bidez, zuzenean edo zeharka, inolako oparirik, mesederik, onurarik, abantailarik edo konpentsaziorik agindu, eskaini, eman, eskatu edo onartu, dirutan edo generotan, baldin eta bere karguaren ondoriozko funtzioak betetzerakoan erabakiak hartzeko prozesuan eragina izan badezakete. Galarazpen honetatik salbuetsita daude balio txikia duten ohiko opari sinbolikoak edo publizitaterako edo promoziorako materialak.
4. Arduradun, enplegatu edo kolaboratzailearen batek horrelako eskaintzaren bat jasotzen badu, nagusiari jakinarazi beharko dio berehala.
5. Kode honek esandakoaren aurka hartutako opari oro berehala itzuli beharko da eta nagusiari edo zuzeneko arduradunari jakinaraziko zaio. Itzuli ezin bada, erakundeko nagusiari edo arduradunari emango zaio oparia eta hark xede sozialetara bideratuko du.

49. Agintari eta erakunde publikoekiko harremanak

Administrazio publikoekiko harremanetan, Lagundiaren erakunde edo jardueretan lan egiten duen edo lankidetzan aritzen den inork ez du agintari, funtzionario

edo funtzio publikoan diharduen pertsona baten gainean behar ez bezalako eraginik izango, erakundearen mesedeko erabakiak lortzeko.

D) Erakundearen barruko harreman pertsonalak

50. Konfiantza eta askatasun giroa lanean

1. Enplegatu eta kolaboratzaile guztiek egingo dute ahalegina laneko giro atsegina eta pizgarria sortzeko, bakoitzaren merituak aitortuko dira eta elkarren errespetua, ideien trukaketa, berdintasuna, laguntasuna eta are adiskidetasuna ere sustatuko dira.
2. Saihestu egingo da, hortaz, indarkeria, larderia, etsaitasun edo umiliazio oro, lan arloan zein sexu arloan, eta arreta berezia eskainiko zaio desgaitasunen bat duten pertsonak lan munduan sartzeari

51. Portaera duina eta errespetuzkoa

1. Besteekin ez da hitz edo keinu itsusirik edo errespetu gabekorik erabiliko.
2. Besteei zor zaien errespetuagatik, behar bezala jantzita joan behar da lanera, erakunde bakoitzeko arauen arabera.
3. Lantokian ezin daiteke material pornografikorik sartu, saldu, erakutsi, eskaini edo eduki.

52. Alkoholik eta drogarik ez

1. Besteei zor zaien errespetua eta lan egoki egitea ez dira bateragarriak alkoholaren abusuarekin eta droga toxiko, substantzia estupefaziante edo psikotropikoen kontsumoarekin.
2. Lantokian ezin daiteke landatu edo elaboratu legez kanpoko substantziarik, ezta halakorik eduki edo halakoekin trafikatu ere.

Kodea betetzeko neurriak

53. Komunikazioa eta zabalkundea

Kode hau Espainian Lagundiaren erakunde eta jardueretan lan egiten duten eta lankidetzan aritzen diren guztiei bidaliko zaie, Lagundiaren eta bere erakundeetako webguneetan argitaratuko da eta komunikatzeko, trebatzeko eta sentsibilizatzeko ekintzak burutuko dira, behar bezala ulertu eta praktikan jar dadin.

54. Konpromisoa

Kode hau aplikatu behar zaien pertsonak ale bat jaso dutela esaten duen agiria sinatuko dute, eta edukia ulertzen dutela eta betetzearekin ados daudela adieraziko dute.

55. Kodea betetzea

1. Kode honetako xedapenak betetzea Lagundiaren erakundeetako eta komunitateetako enplegatuek dituzten kontratuzko betebeharren funtsezko parte da. Beraz, egon daitekeen beste erantzukizunak eragotzi gabe, Kodean jasotako arauak eta jokabideak betetzen ez badira, diziplina zehapena ezar daiteke, dagokion lan legerian xedatutakoaren arabera.
2. Kode hau aplikatu behar zaionari ezin dakioke eskatu bertan xedatutakoaren aurkakoa egiteko.

56. Betetze Batzordea

1. Kodea betetzen dela bermatzeko, Betetze Batzordea egongo da, Espainiako Probintzialaren mendeko organo modura. Batzorde horretan hiru kide egongo dira eta Espainiako Probintzialak izendatuko ditu hirurak, denbora jakin baterako. Idazkari exekutiboa ere batzordeko kidea izango da eta kudeaketa arruntaren ardura izango du.
2. Honako hauek dira Betetze Batzordearen eginkizunak:
 - i. Jasotako kontsultak, kexak edo komunikazioak aztertu eta erantzutea.
 - ii. Salaketak tramitatzea eta, dagokionean, erakundeko zuzendariari edo komunitateko nagusiari, edo haien



eskuordeari, behar diren neurri zuzentzaileak hartzeko proposatzea.

- iii. Jokabide Kodea betetzen dela ziurtatzeko auditoriak eta ebaluazioak agintzea eta urtero txosten bat egitea Probintzialari aurkeztea.
 - iv. Lagundiak Espainian dituen erakunde eta komunitate guztietan Kodea ulertzeko eta praktikan jartzeko behar diren komunikazio, trebakuntza eta sentsibilizazio ekintza egokiak sustatzea.
 - v. Jokabide Kodean egin beharreko aldaketak proposatzea, konpromiso eta egoera berrietara etengabe egokitu ahal izateko.
3. Batzordeak bere ekimenez edo Lagundiaren erakunde edo komunitateren batean lan egiten duen pertsonaren batek edo Lagundiarekin lotura duen batek eskatuta edo jakinarazita jardun dezake.
 4. Horretarako batzordeari helarazi nahi zaizkion jakinarazpenak 60.ean azaldutako bidetik edo beste bide hauek erabilita igor daitezke:

Posta elektronikoa: comitecumplimiento@jesuitas.es

Posta helbidea: Betetze Batzordea. Jesusen Lagundia. Avenida de la Moncloa, 6, 28003-Madrid.

57. Arau-hausteen jakinarazpena

1. Erakundearen eta berarekin harremanak dituzten guztien mesederako, Kode hau aplikatu behar zaien pertsonak Kodeko xedapenen aurkako jokabideen berri eman beharko diote beren zuzendariari edo komunitateko nagusiari edo, nahiago badute, Betetze Batzordeari, halakoen berri badute, bereziki, nahitaez bete beharreko legeak edo arauak hautsi badira edo norbaiti kalteren bat egin bazaio.
2. Kode honetako xedapenen aurkako jarduerak kaltetutako pertsonak erakundeko zuzendariari edo komunitateko nagusiari eman ahal izango diote gertaera kaltegarri horien berri. Betetze Batzordeari ere jakinaraz diezaioke, gertaerak guztientzako garrantzia badu. Langileek lan egoeraz dituzten kexak erakundeko giza baliabideen sailaren edo arduradunaren bidez izapidetuko dira.
3. Arau-hauste baten jakinarazpenaren berri duenak isilpekotasuna eta sekretua gorde beharra du.

4. Betetze Batzordeko kideek baino ez dute izango salaketa-sisteman jasota dauden datuetarako sarbidea. Hala ere, beste pertsona batzuek ere eskuratu ahal izango dituzte datu horiek, eta hirugarren batzuei ere jakinarazi ahal izango dizkiete, kasuan kasuko bidezko diziplina neurriak hartzeko, edo prozedura judizialak tramitatzeko beharrezkoa izanez gero.

Arlo administratibo edo penaleko arau-haustea izan litezkeen egitateak agintari eskudunari jakinaraztea eragotzi gabe, diziplina-neurriak hartu behar badira, giza baliabideen kudeaketa eta kontrol funtzioak dituzten pertsonak sarbidea izango dute. Edonola ere, beti ere konfidentzialtasuna gordez, Betetze Batzordeak, prozeduran zehar, beste sail edo unitate batzuen aholku eta lankidetzak eskatu ahal izango du, salaketei buruzko ondorioak zehazten eta nola jokatu ebazten laguntzeko.

5. Emandako informazioaren eraginpeko pertsonen datuen konfidentzialtasuna bermatuko da, bereziki, erakundeari gertakarien berri eman dion pertsonarenak, eta haren ukigabetasuna ere bermatuko da. Inolaz ere ez da errepresaliarik hartuko haren aurka, informazioa fedean eman badu.
6. Arau-haustearen berri ematen duen pertsonaren datuak, baita eraginpeko langile eta hirugarrenenak ere, salaketa-sisteman gorde behar dira, baina soilik salatutako gertakariak ikertu behar diren ala ez erabakitzeko behar den denboran. Edonola ere, datuak salaketa-sisteman sartu eta hiru hilabeteren buruan kendu egingo dira bertatik, Kodearen funtzionamenduaren froga gisa gordeko ez badira. Ikerketarekin jarraitzeko, datuak gorde behar izanez gero, erakundean ikerketa egitea dagokion organoak jarraitu ahal izango du datuak tratatzen, barneko salaketa-sisteman gorde gabe.

58. Gainbegiratzea

Dena dela, Lagundiaren erakunde eta jardueretako zuzendariek eta arduradunek aldiro ikuskatu beharko dituzte beren mendekoen jarduerak.

59. Berrikusketak

Kodea berrikusi egin beharko da, beharrezkoa denean, lege aldaketetara eta Lagundian planteatzen diren egoera eta konpromiso berrietara egokitzeko.

Eranskina

Jokabide Kodearen balizko arau-haustek jakinarazteko eta ebazteko prozedura

Hasierako fasea Jesusen Lagundiko enplegatuek, kolaboratzaileek eta erakundearekin loturaren bat dutenek kode honetako balizko arau-hausteren bat egiten badute, modu pertsonalean eta ahoz edo idatziz jakinarazi beharko zaio erakundeko zuzendariari edo komunitateko nagusiari, edo zuzenean eta idatziz Betetze Batzordeari, 56. 4an zehaztutako bideak erabiliz. Salaketa modu pertsonalean eta ahoz egiten bada, nagusiak edo zuzendariak idatziz jasoko du eta salaketa egin duenak idazkia sinatuko du, zuzendariak edo nagusiak salaketaren arazoa erakundearen edo komunitatearen beraren barruan ebatzi daitekeela erabakitzen duen kasuetan izan ezik. Salaketa zuzenean jaso ondoren, erakundeko zuzendariak edo komunitateko arduradunak egoki iruditzen zaizkion kautela-neurriak hartuko ditu eta haien berri emango dio Betetze Batzordeari. Horrez gain, egin den guztia bidaliko dio, ahalik eta lasterren.

1. Erakundeko zuzendariak edo komunitateko nagusiak urratzen badu Kodea, kexa idatziz zuzendu beharko zaio dagokion Probintzialaren Ordezkaritari edo Probintzialari berari, hurrenez hurren, baita Betetze Batzordeari ere. Jakinarazpena jasota, Probintzialak edo Ordezkaririk egokiak iruditzen zaizkion kautela-neurriak hartuko ditu eta Batzordeari haien berri emango dio. Horrez gain, egin den guztia bidaliko dio, ahalik eta lasterren.
2. Salaketa Betetze Batzordeko kideren baten aurkakoa izanez gero, Batzordeak ezin izango du tramitazioan parte hartu.
3. Salaketaren idazkian honako hauek, gutxienez, jaso beharko dira:
 - Salaketa egiten duenaren identifikazioa.
 - Salaketa gertaeren deskripzio zehatza (egoera, data, eraginpeko arloa, inplikaturako pertsonak, gertaerak ikusi edo ezagutzen dituzten pertsonak...).
 - Arau-haustearen identifikazioa, nor den jakinez gero.

Salaketarekin batera, eskura dauden frogabide guztiak aurkeztu beharko dira.

Salbuespen gisa, salaketa anonimoak ere onartu ahal izango dira, beti ere egoki arrazoituta eta frogabideekin batera aurkeztuz gero.

4. Betetze Batzordeak, salaketa jaso eta zazpi egun naturaleko epean, idazkia bidaliko dio salaketa egin duenari salaketa jasota dagoela eta bere datu pertsonalak gaur egun indarrean dagoen legeriari jarraiturik bildu eta tratatuko direla jakinarazteko. Batzordeak jasotako informazioa ez dela argia edo nahikoa uste badu, bost eguneko epearen barruan beharrezkoak diren zehaztasunak emateko eskatuko dio salaketa jarri duenari.
 1. Betetze Batzordeak ez du tramitaziorik egingo baldin eta salaketak ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, emandako informazioa osoa ez bada —osatzeko eskatu ondoren ere ez—, Jokabide Kodea hautsi dela pentsatzeko arrazoizko zantzurik ez badauka, gertaerak administrazio agintaritzea edo organo judizialen batean salatu badira eta bertan epaitzen edo ikertzen ari badira, edo beste arrazoiren batetatik bere eskumenekoa ez bada. Erakundeak bere jokabide kodea badu, Betetze Batzordeak, salaketa jarri duen pertsonaren baimena izan ondoren, erakunde horri helaraziko dio salaketa, bertako arauei jarraituz ebaluatu eta tramitatu dezaten.
 2. Salaketa izapidetzea onartu ondoren, Betetze Batzordeak salatzaileari salaketa jaso duela jakinarazteko igorritako idazkian bertan edo geroagoko idazki batean, informazio osagarria eskatu eta jaso badu, kautela-neurriak har daitezkeela adieraziko dio, oraindik hartu ez badira.
 3. Salaketa zuzenean Betetze Batzordeari bidali bazaio, Batzordeak erakundeko zuzendariari edo komunitateko nagusiari helaraziko dio salaketaren edukia eta zein kautela-neurri hartu behar diren adieraziko dio. Horretaz gain, beharrezko baderitzo, salaketagai diren egitateei buruzko txosten idatzia eskatuko dio, bereziki erakundearen beraren interes orokorrari eta funtzionamenduari eragiten badiote.
 4. Era berean, idazkia salatutako pertsonari bidaliko dio, kexaren edukia helarazteko eta bertan jasota dauden datu pertsonalak eta prozeduraren tramitazioan eskura litezkeenak zer helbururekin tratatu behar diren jakinarazteko. Hala ere, jakinarazpen horrek arriskua

badakar salatutako pertsonak gertakariak ikertzeko beharrezkoak diren frogak manipulatzeko edo ezabatzeko, jakinarazpena atzeratu egin daiteke salaketa jasotzen denetik, gehienez, hilabetera.

2. Garapen fasea

- 61.** Salaketa eta, kasua bada, eskatutako txostena aztertu ondoren, Betetze Batzordeak uste badu, salaketaren izapidea onartu eta hamar eguneko epearen barruan, ez dagoela Jokabide Kodea haustearen zantzurik, artxibatu egingo ditu jarduketak eta amaitutzat emango du prozedura. Largespena idatziz jakinaraziko zaie salaketa jarrita prozedurari ekin dion pertsonari eta salatuari, baita erakundeko arduradunari ere. Era berean, espedientean jasota dauden datu pertsonal babestu guztiak ezabatuko dira eta salaketa jarri duenari berak emandako dokumentazio guztia itzuliko zaio. Haatik, Kodearen funtzionamenduaren froga gisa gordeko badira, anonimo bihurturik gordeko dira.
 - 62.** Aitzitik, Betetze Batzordeak uste badu, aipatutako epearen barruan, gertaeretan Jokabide Kodea haustearen zantzuak daudela, ikerketari ekingo dio gertaerak argitu eta frogatzeko. Erabakia idatziz jakinaraziko zaie gertaerak salatu dituen pertsonari, salatuari eta erakundeko arduradunari, eta ikerketaren ardura zer pertsonak edo taldek izango duen adieraziko zaie.
1. Betetze Batzordeak instruktorea izendatuko du. Batzordekideetako bat izan liteke edo inolako loturarik ez duena ere bai, ikertu beharreko gaiaren arabera. Ezingo zaio ikerketaren ardura esleitu pertsona bati baldin eta harreman zuzena badu salatutako gertakaria jazo den erakundeko sail edo jarduera zentroarekin, salatutako gertaerekin, salatutako pertsonarekin edo salaketaren idazkian aipatzen diren pertsonekin, edo interes gatazkaren baten eraginpean egon baliteke.
 2. Izendapena errekurritu egin lezakete Batzordearen aurrean, era arrazoituan eta aurreko idazkia jaso eta egun biko epearen barruan, bai salaketa jarri duen pertsonak, bai salatuak, bai inplikaturako erakundeak, baldin eta aurreko paragrafoan adierazitakoarekin bat datorren egoeraren bat dagoela jakinez gero. Batzordeak hiru eguneko epean ebatziko du errekurtsua.

3. Isilpeko ikerketa gehienez hogei eguneko epearen barruan egin beharko da. Horretarako, instruktoreak beharrezkoak dituen informazioa, argitasuna, lekukotzak, iritziak edo dokumentazioa eska ditzake, eta elkarrizketa pertsonalak egin ere bai. Elkarrizketetan, pertsonen pribatutasuna eta erakundearen ospe ona babestu beharko dira. Instruktoreak elkarrizketen akta egingo du, eta berak eta elkarrizketatutako pertsonak sinatuko dute. Jarduketa bakoitza egiteko edo bidaltzeko epea bost egunekoa izango da.
4. Edonola ere, ikerketa amaituta, salatutako pertsonari helaraziko zaizkio frogatutako gertaerak, egoki iruditzen zaion gutzia idatziz adieraz dezan, bost eguneko epearen barruan.
5. Jarduketa horiek guztiak kasu bakoitzaren egoera eta baldintzetarako egokiak izango dira beti, erabateko independentzia eta inpartzialtasunez jardungo da eta eraginpeko pertsonen entzute eskubidea eta errugabetasun presuntzioa errespetatuko direla bermatuko da. Prozesuan parte hartzen duten pertsona guztiak daude beharturik behar den konfidentzialtasuna eta diskrezioa gordetzera eta kolaboratzera. Bermaturik egongo da haien ukigabetasuna, eta arau-haustearen berri eman dutenena ere bai.

3. Amaiera fasea edo ebazpena

- 63.** Jarduketak kontuan hartuta, ikerketa amaitu ondorengo hamar eguneko epearen barruan, Betetze Batzordeak egoki diren zigorrak edo neurriak hartzeko proposatuko dio erakundeko zuzendariari edo komunitateko nagusiari, edo, haiek izan baldin badira arau-hausleak, Probintzialaren Ordezkaritari edo Probintzialari berari. Arau-haustea edo kodea ez betetzea lan arlokoa bada, lan arauei jarraituko zaie zigorra jartzeko orduan. Horrek ez du eragotziko erantzukizun administratiboak edo penalak eskatzea, halakorik badagokio. Halako kasuetan, erakundeko arduradunak berehala eman beharko die arau-haustearen berri erakunde administratibo edo judicial eskudunei. Era berean, egindako kaltea konpontzeko edo, behintzat, gutxitzeko neurriak proposatuko ditu.
- 64.** Arau-hauslea kolaboratzailea bada, Betetze Batzordeak, gertaeren larritasunaren eta maiztasunaren arabera,

kargu hartzea den egokia ala kolaborazioa eten egin behar den proposatuko du. Horrez gain, erantzukizun administratiboak edo penalak ere egonez gero, berehala jakinarazi beharko dizkie erakundeko arduradunak dagokion agintaritza administratibo edo judizialari. Era berean, egindako kaltea konpontzeko edo, behintzat, gutxitzeko neurriak proposatuko ditu.

- 65.** Jokabide Kodeko araua hautsi duena edo bete ez duena Jesusen Lagundiko kidea bada, Probintzialari edo Hirugarren Adinekoentzako eta haien Prestakuntzarako Ordezkaritari, kasuaren arabera, zuzenduko zaio neurrien proposamena.
- 66.** Erakundeko zuzendariak edo komunitateko nagusiak zer neurri ezarri diren jakinaraziko dio Betetze Batzordeari.
- 67.** Salatutako gertaerei buruzko zalantzarik ez badago, arau-hausleak onartu dituelako, Betetze Batzordeak isilpeko ikerketarik egin gabe ebatzi ahal izango du.
- 68.** Espedientea ez da zertan amaitu kasua largetsita edo zehapen edo diziplina neurriak proposatuta; horietaz gain, gomendioak, oharrak edo bestelako neurriak ere eman litezke. Era berean, auziak hala eskatuz gero eta inplikaturako pertsonak ados egonez gero, bitartekaritza prozesua ireki daiteke.

4. Errekurtso fasea

- 69.** Erakundeko zuzendariak edo komunitateko nagusiak hartutako erabakiaren aurka, errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, zazpi egunen barruan, eta Probintzialaren Ordezkaririk ebatziko du edo, bestela, Probintzialak berak. Erabakia azken bi horiek hartutakoa bada, errekurtsoa Probintzialari aurkeztuko zaio.

Errekurtsoa idatziz bidaliko da helbide honetara: Avenida de la Moncloa, 6, 28003-Madrid. Errekurtsoa jasotakoan, Probintzialak edo dagokion Ordezkaririk honako dokumentu hauek eskatuko ditu:

- Betetze Batzordearen jarduketari buruzko espediente osoa.
- Erakundeko zuzendariak edo komunitateko nagusiak hartutako ebazpenak.

- Betetze Batzordeak espedientearen ebazpenaren inguruan egindako txostenak eta neurriak hartu zituen zuzendari edo nagusiaren txostenak, beharrezko iritziz gero.

Probintzialak edo haren Ordezkariek ebatziko du errekurtsua, aurkezten denetik hilabeteko epearen barruan.

5. Beste erantzukizun batzuk

- 70.** Largespena dekretatuta, ikerketan salaketaren edukia faltsua dela erakusten duten zantzuak agertzen badira eta salaketa egin duenak ageriko maltzurkeriaz edo ausarkeriaz jokatu badu, espedientea hasiko da zer erantzukizun izan dezakeen erabakitzeko. Ez da joko fede gaiztoz jokatu duenik, salaketa egitean mendekatzeko asmorik, jazarpena egiteko asmorik, laneko edo lanbideko kaltea eragiteko asmorik edo salatutako pertsonaren edo hirugarren baten ohoreari kalte egiteko asmorik egon ez bada.
- 71.** Erantzukizun administratibo edo penalik egonez gero, gertaeren ikerketan kolaboratu beharko da, prozeduran froga argigarriak emanez; ahalik eta lasterren konpondu edo gutxituko da arau-hausteak edo delituak eragindako kaltea; eta neurri egokiak ezarriko dira aurrerantzean Jesusen Lagundiaren edozein erakunderen barruan edo bertako baliabideekin arau-hausteak egin daitezten saihesteko eta egindakoak hautemateko.
- 72.** Delituaren biktima pertsona fisikoa bada, eragindako kaltea konpontzeko edo gutxitzeko egoki irizten diren neurriak ahalik eta lasterren ezartzeaz gain, beharrezkoa den laguntza eskainiko zaio, izan ditzakeen era guztietako ondorioak ezabatzeko.